

## IPUIN KATEATUAK

Deskribapena: Kike Elgoibarren agertzen da bost pertsonekin batera.

Kike: “Kaixo kuadrila! Aizue, jolas txiki bat egin behar dugu, animatzen al zarete?”

Boskotea: “E, bueno, ikusiko dugu!”

Kike: “Nik puntua jarri eta denon artean ipuin txiki bat osatzea. Etorri, etorri nirekin! Begira!”

Deskribapena: Zelai batean borobil batean ipintzen dira guztiak.

Kike: “Animaliek hizketan zekiten garaian, ba omen zen haur bat gezurrik esaten ez zekiena.”

Boskoteko lehenengo kidea: “Animalixeri beti esaten zizkien egixak nahiz ta haueri askotan ez gustau!”

Boskoteko bigarren kidea: “Ardixei, mozolo eta aspergarri deitzen zien; astuei astakirten eta egoskor! Eta behixei berriz, alper eta loti!”

Boskoteko hirugarren kidea: “Orduan, animalixak hasarrau, asanbleia egin eta erabaki zeben umiek ez entendintzeko moduan berba ittea.”

Boskoteko laugarren kidea: “Kontua da, orduan, animalia mota bakoitzak, erabaki debela, bere berbetie bere hizkera asmatzia, behiek marru, astoek arrantza, ardiek bee eta txakurrek zaunka.”

Boskoteko bosgarren kidea: “Orain badakit zergatik ez dittugun animalixak entenditzen gaur. Ta eurek? Eurek entenditzen ote gaittue gu?”

Kike: “Aha! Eta hau hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila inongo plazan!”